


Euskal AEko txikizkako sektoreko salmentek % 0,7ko igoera izan dute 2023ko hirugarren hiruhilekoan

2023ko lehen hiru hiruhilekoen metatuan, txikizkako merkataritzaren salmentek % 1,1eko igoera izan dute

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektoreko salmentek % 0,7ko igoera izan dute 2023ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, egutegi-eraginak atera ondoren eta prezio konstanteetan. Salmenten urtetik urterako igoera, gasolina-zerbitzuguneak kontuan hartu gabe, % 0,3ra iritsi da.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, berriz, bidezko urtaro-eraginak kenduta, 2023ko hirugarren hiruhilekoko salmenta-indizeak % 0,1eko beherakada izan du.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Elikagaien sektoreko salmentek, prezio konstanteetan, % 1,4ko igoera izan dute 2022ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. *Gainerako produktuen* sektorean, berriz, salmentek % 0,7ko beherakada izan dute urtetik urtera. Azkenik, *Automoziorako erregaiaren* sektorean, salmentak aurreko urteko hilabete berekoak baino % 5,8 handiagoak izan dira.

2023ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, urtaro-eraginik gabe eta prezio konstanteetan, *Elikagaien* sektoreko salmentek % 0,2ko igoera izan dute, eta *Gainerako produktuen* sektorekoek, berriz, % 2,4ko beherakada. Bestalde, *Automoziorako erregaiaren* sektoreko salmentek emaitza positiboa izan dute, eta % 4,8 igo dira.

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2023/III

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	At / At-4
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	0,7	-0,1	1,1
Araba/Álava	1,1	-0,3	-1,9
Bizkaia	2,9	0,7	2,8
Gipuzkoa	-2,6	-1,2	-0,1
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	1,4	0,2	1,1
Elikagaien saltoki espezializatuak	-2,0	-0,4	-2,0
Elikagaiak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	3,0	0,1	2,6
Gainerako produktuak	-0,7	-2,4	1,6
Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	5,0	0,4	4,2
Ebearen ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	-8,8	-3,5	-2,4
Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako establezimenduak	5,6	0,7	5,7
Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	3,3	-0,6	2,7
Automoziorako erregala	5,8	4,8	-1,9
INDIZE OROKORRA gasolindegirik gabe	0,3	-1,2	1,4
LANGILERIA-INDIZEA			
Euskal AE	1,2	0,3	1,3

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

At/At(4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Data 2023ko Azaroaren 8a

Iturria: Eustat. Txikizkako Merkataritzaren Indizea (BMIt)

Elikagaien lotutako txikizkako merkataritzaren barruan, *Elikagaietan*, *edarietan* eta *tabakoan espezializatutako* merkataritzan (fruta-dendak, harategiak, arrandegiak eta abar) egindako salmentek % 2,0ko beherakada izan dute 2022ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Aitzitik, *Elikagaiak*, *edariak* eta *tabakoa nagusi diren txikizkako merkataritza ez-espezializatuan* (supermerkatuak eta hipermerkatuak nagusiki), salmentek % 3,0ko igoera izan dute urtetik urtera.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzaren barruan, *Beste kontsumo-ondasun batzuetan espezializatutako* sektorean (kirol-gaiak, jokoak eta jostailuak, besteak beste) salmentek % 5,6ko igoera izan dute aurreko urteko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. *Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako* sektorean (arropa, oinetakoak, produktu kosmetikoak edo higiene-produktuak), salmentek % 5,0ko igoera izan dute. *Gainerako produktuak nagusi diren txikizkako merkataritza ez-espezializatuaren* sektorean (korrespondentzia edo Internet), salmentak % 3,3 igo dira

urtetik urtera. *Etxeko ekipamenduaren* sektorean (etxetresna elektrikoak, altzariak eta komunikazio-ekipamenduak), berriz, salmentek % 8,8ko beherakada izan dute.

Lurralde historikoak kontuan hartuta, 2023ko hirugarren hiruhilekoko salmenten indizeak % 2,9ko igoera izan du urtetik urtera Bizkaian, eta % 1,1ekoa Araban. Gipuzkoan, berriz, % 2,6ko beherakada gertatu da.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, salmenten bilakaera Bizkaian baino ez da positiboa izan, % 0,7ko igoerarekin. Araban, salmentek % 0,3ko beherakada izan dute hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta Gipuzkoan, berriz, % 1,2koa.

Euskal AE osoan, 2023ko hirugarren hiruhilekoan txikizkako merkataritzaren sektorean aritu diren langileen kopuruak % 1,2ko igoera izan du aurreko urteko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, berriz, igoera % 0,3koa izan da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hirugarren hiruhilekoko indizea laginaren **% 95,3ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62